

## Herrien arteko 24. Folklore Jaialdia: Barakaldoko jaialdiak 25 urte

Badator berriro ere Barakaldoko Herrien arteko Folklore Jaialdia, beti legez, **Ibarra-kaldu** elkarteak antolatutik. **Azaroaren 20an** hasi eta **abenduaren 7an** amaituko da. Duela 25 urte sortu zen jaialdia, baina aurtengoa **24. edizioa** da, COVID dela-eta iaz nahitaez egindako etenaren ondorioz. Jaialdiaren **babesleak** Bizkaiko Foru Aldundia, Barakaldoko Udala, Barakaldo Antzokia eta Kutxabank dira, eta **laguntzaileak**, Areatzako Udala, Deia egunkaria, Radio7-Tele7, MetroBilbao, Kilika Bertso Eskola eta Alonsotegiko Mendipe dantza taldea.

**Ekitaldi nagusiak** Barakaldo Antzokian egingo dira, abenduaren 4an eta 5ean, larunbat eta igande, hurrenez hurren, eta jaialdia Barakaldotik kanpora eramaten den eguna, Alonsotegin, abenduaren 6an, astelehena. Baina egun horietakoez gain, badira **atariko ekitaldi** batzuk ere, bi aste lehenago hasi eta abenduaren 7a arte.

**Aurreko 23 edizioetan**, Ibarra-kaldu talde antolatzailearekin batera, **37 dantza taldek** hartu dute parte dantza-egunean, Estatuko autonomia erkidego guztietatik etorrita, baita beste estatu baltzuetatik ere, hala nola Belgika, Frantzia, Italia eta Portugaletik. Dantza-talde horietako musikariez gain, **beste 29 musika taldek** eta **hainbat bertsolarik** ere hartu dute parte musika egunean, non gure inguruan ditugun gutxiengoan musika kulturari ere ireki zaion atea. Baina dantza eta musika talde horietaz gain, **Bizkaiko 16 talde** ere izan dira, anfitrioi lanetan, Barakaldotik kanpo egiten den eguneko emanaldian.

### ATARIKO EKITALDIAK

- **Txotxongilo-antzerkia**

Folklore jaialdia antzerki munduko ekitaldi batek irekiko du. Jaialdiaren ibilbidean hirugarren aldiz agertuko da antzerkigintza egitarauan, eta aurtengoan, **BIHAR** txotxongilo taldeak “Tartalo eta sorgina” izeneko lana eskainiko du, euskal mitologiako ipuinak txikienei ezagutarazteko. **Azaroaren 20an** izango da, **larunbata, 18:30ean, Ibarra-kaldu elkartearen egoitzan.**

- **Bertso-afaria**

Berriro ere, bertsolaritza jaialdiaren egitarauan ageri, **Ane Labaka** eta **Jone Uria** bertsolariek parte hartuko baitute **azaroaren 26ko** bertso afarian, **Ibarra-kaldu elkartearen egoitzan** bertan, **21:30ean. Kilika Bertso Eskolarekin** batera antolatu da ekitaldia.

- **Hitzaldiak**

Aurten ere, **bi hitzaldi** antolatu dira jaialdiaren egitarauaren barruan, eta horiekin jarraitu nahi da Euskal Herriko folkloreak hainbat alderdi jorratzen. Bi hitzaldiak **Ibarra-kaldu elkartearen egoitzan** egingo dira.

- **Azaroak 27, larunbata, 19:30ean**, “**MITOLOGIKATIK JENTILAKera**” izeneko hitzaldia emango du **Aritz Bergara** idazleak, Euskal Herriko mitologiari buruz eta bere lanen bitartez.
- **Abenduaren 7an, asteartea**, “**Cultura popular y patrimonio; el calendario festivo encartado**” hitzaldia emango du **Emilio Xabier Dueñas** etnografo folkloristak

- **Argazki-erakusketa**

Aurtengo erakusgaia emigrazioarekin lotuta dago, **XX. mendean Galiziatik Euskal Herrira etorritakoen lekukotza grafikoak** ikusgai izango baitira **Clara Campoamor** zentro zibikoan, **azaroaren 29tik abenduaren 3 arte.**

## EKITALDI NAGUSIAK

Hiru dira Herrien arteko Folklore Jaialdiaren jardunaldi nagusiak: **Dantza Eguna**, **Musika Eguna** eta **Kanpoko Eguna**. Doakoa da sarrera jardunaldi horietako ekitaldi guztietan.

- **Dantza Eguna**

**Abenduaren 4an**, larunbata, **19:30ean** hasiko da, **Barakaldo Antzokian**, jaialdiko **dantza emanaldi nagusia**. Aurtengoa desberdina eta berezia izango da, oso. Desberdina, kanpoko talderik ez dagoelako edizio honetan: izan ere, pandemia bera eta hura geldiarazteko neurriak berebiziko oztopo izan dira kanpoko talde askorentzat, konpromisoak behar besteko aurrerapenez ziurtatzeko orduan. Hori dela eta, bestelako formatu batean emango da ekitaldia, ikuskizun oso eta bakarra eskainiko baita, hiru talderen emanaldi berezietan osatutako ekitaldiaren ordean. Ikuskizun berezi horrek **“Miña nai”** du izena, eta oinarria, XX. mendean Euskal Herria jomuga izan zuten galziarren emigrazioa. Dantza, musika eta bideoaren bidez irudikatuko da sorterrria uztea, kultura bien arteko topaketa, elkar ezagutzea eta elkar maitatzea. **Patxi Laborda** dantza maisua eta koreografoak pentsatu eta zuzendu du lana, eta bertan parte hartuko dute, **Ibarra-kaldu** taldeko dantzari eta musikariek batera, **“Doces Lembranzas”** dantza taldeak, **“Folketan”** musika taldeak, **“Ceo do Sil”** *gaiteiro* taldeak eta **“Son Mesturado”** *cantareira* taldeak hartuko dute parte elkarrekin.

- **Musika Eguna**

**Abenduaren 5ean**, igandea, **19:30ean** hasiko da jaialdiko musika eguneko ekitaldia, **Barakaldo Antzokian**, eta hiru emanaldi desberdin eskainiko dira oholtza gainean. Lehena, Iruñetik etorrira, **“Hego Haizea”** musika taldeak hartuko du parte: **Aitor Urquiza** txistulariak, **Xabier Olazabal** akordeoilariak eta **Beñat López** perkusio-jotzaileak osatuta. Ondoren, **“Son Mesturado”** *cantareira* taldeak hartuko du parte, musika eguna ere galziar doinuekin janzteko. Amaitzeko, **Ibarra-kalduko** musikariek eta erraldoizaleek, Sestaoko **“Birakari”** erraldoi konpartsak lagundurik, **“Erraldoiak Oroibide”** ikuskizuna emango du berriz, Beurko-Bagatzako jaietan izandako arrakastaren ondoren, antzokian Barakaldo osora zabaltzeko asmoz. Udalerrriaren iragana oroitzeko ikuskizuntxo horretan, Barakaldoko Udalaren erraldoi berriak dantzatuko dira musikarieren doinuetara, **Areatzako Udalak** berriaz utzitako bertako Txistulari eta Añude erraldoiekin batera.

- **Kanpoko eguna**

**Alonsotegin** izango da aurtengo kanpoko eguna, jaialdia Bizkaiko beste udalerriri batera zabaltzen den eguna. **Abenduaren 6an**, **astelehena**, dantza-emanaldi bat egingo da, **13:00etan**, eta bertako **Mendipe** dantza-taldearekin batera, **Tuterako Laya** Kultura elkarteak hartuko du parte, aurtengo jaialdiko kanpoko talde bakarra.

## **Eranskina: Herrien arteko XXIV. Folklore Jaialdiaren egutegia**

### ATARIKO EKITALDIAK

#### **Azaroak 20, larunbata**

18:30 – Txotxongilo antzerkia. BIHAR taldea: “Tartalo eta sorgina”. Tokia: Ibarra-kaldu elkarte.

#### **Azaroak 26, ostirala**

21:30 Bertso-afaria, Ane Labaka eta Jone Uria bertsolariekin. Tokia: Ibarra-kaldu elkarte.

### **Azaroak 27, larunbata**

19:30 – Hitzaldia: “MITOLOGIKATik JENTILAKera”. Hizlaria: Aritza Bergara. Tokia: Ibarra-kaldu elkarte.

### **Azaroaren 29tik, astelehena, abenduaren 3 arte, ostirala**

- Argazki erakusketa. “Galiziatik Euskal Herrira: XX. Mendeko emigrazioa”. Barakaldoko Bizkaiko Galiziar Etxeak eta haren bazkideek utzitako argazkiekin. Tokia: Clara Campoamor zentro zibikoa.

### **Abenduak 7, asteartea**

19:30 – Hitzaldia: “Cultura popular y patrimonio; el calendario festivo encartado”. Hizlaria: Emilio Xabier Dueñas. Tokia: Ibarra-kaldu elkarte.

## **EKITALDI NAGUSIAK**

### **Abenduak 4, larunbata**

#### **Dantza-eguna (Barakaldo Antzokia)**

19:30 – Dantza emanaldia: “Miña nai”

- Doces Lembranzas
- Ceo do Sil
- Son Mesturado
- Folketan
- Ibarra-kaldu

Idea eta zuzendaritza: Patxi Laborda.

### **Abenduak 5, igandea**

#### **Musika-eguna (Barakaldo Antzokia)**

19:30 – Musika emanaldia

- Hego Haizea taldea (Iruñea)
- Son Mesturado *cantareira* taldea
- Ibarra-kaldu eta Sestaoko Birakari erraldoi-konpartsa: “Erraldoiak Oroibide”

### **Abenduak 6, astelehena**

#### **Kanpoko eguna: ALONSOTEGI**

13:00 – Dantza emanaldia

- Laya kultur elkarte (Tutera-Nafarroa)

- Mendipe dantza-taldea (Alonsotegi)

## ERANSKINA: Jaialdiko dantza taldeak

<b>Jatorria Origen</b>	<b>Dantza-Taldea Grupo de Danzas</b>	<b>Urtea Año</b>	<b>Edizioa Edición</b>
<b>Andorra</b>	"Esbart Dansaire D'Andorra La Vella"	1999	3
		2011	15
<b>Belgika / Bélgica</b>	"Die Boose", Izegem	2003	7
<b>Frantzia / Francia</b>	"Kelc'h Keltieg Rostren", Rostrenen (Bretainia / Bretaña)	2001	5
	"Lous Crabots de Semisens", St.-Vincent-de-Tyrosse (Landak / Las Landas)	2009	13
	"Le Quadrille Occitan", Toulouse	2013	17
<b>Italia</b>	"Terra Del Sole", Lombardia (Italia)	2002	6
<b>Portugal</b>	Grupo Folklórico "Taveiro", Coimbra	2000	4
	Grupo Folklórico de Vila Verde	2010	14
<b>Andaluzia / Andalucía</b>	Grupo Municipal de Canto y Danza, Baza (Granada)	2007	11
	Agrupación cultural Solera, Alhaurín de la Torre (Málaga)	2017	21
<b>Aragoi / Aragón</b>	Grupo Folklórico "N <sup>a</sup> Sr <sup>a</sup> . de la Alegría", Monzón (Huesca)	2006	10
	Grupo de Jotas "Cinco Villas", Bárdena (Zaragoza)	1997 2013	1 17
<b>Asturias</b>	Grupo Folklórico "Excelsior", Gijón (Asturias)	1997	1
	Grupo "Xagardua", Colunga (Asturias)	2006	10
	Grupo La Sidrina, Lugones (Asturias)	2018	22
<b>Kanariak / Canarias</b>	Agrupación Folklórica "Oroval", La Orotava (Tenerife)	2005	9
<b>Kantabria / Cantabria</b>	Grupo de Danzas de Ribamontán al Mar	2004	8
<b>Gaztela eta Leon / Castilla y León</b>	Grupo de Canto y Danza "Escuderos del Arlanza", S <sup>a</sup> . M <sup>a</sup> del Campo (Burgos)	2003	7
	Grupo de Danzas "El Castro", Ponferrada (León)	1998	2
	Agrupación Folklórica de Alba de Tormes (Salamanca)	2008	12
	Grupo folklórico "Urdimbre"	2016	20
<b>Gaztela-Mantxa / Castilla-La Mancha</b>	Agrupación Folklórica "Virgen de Gracia", Puertollano (Ciudad Real)	1998	2
	Grupo folklórico "Puebla del Aljibe, Santa María de los Llanos (Cuenca)	2017	21
<b>Katalunia / Catalunya</b>	Grupo "Esbart Sant Martí", Bartzelona / Barcelona	2002	6
	Grupo "La Farandola", L'Escala (Girona)	2009	13
	Grupo "Esbart Dansaire de Tarragona"	2019	23
	Colla Santa Maria de Mitjaran	2019	23
<b>Valentziako Erkidegoa / Comunidad Valenciana</b>	Grupo de Danzas "Carrascal", Alcoy (Alacant / Alicante)	1999	3
	Grupo de Danzas de Villena (Alacant / Alicante)	2015	19
<b>Extremadura</b>	Grupo "Los Jateros", Fregenal de la Sierra (Badajoz)	2010	14
	Grupo Municipal de Canto y Danza de Cáceres	2001	5
<b>Galizia / Galicia</b>	Agrupación Folklórica "Catalmibre Tradicional", O Burgo-Culleredo (Coruña)	2007 2016	11 20
	Agrupación Folklórica "Celme", Pontevedra	2000 2011	4 15
<b>Errioxa / La Rioja</b>	Grupo de Danzantes de San Asensio	2005	9
	Grupo de Danzantes de Briones	2018	22
<b>Balear Uharteak / Islas Baleares</b>	"Sa Colla de Labritja", Sant Joan de Labritja (Eivissa / Ibiza)	2012	16
	Grup de Ball "Es Penell", Ferreries (Menorca)	2004	8
	"Aires de la Cala (Polença (Mallorca)	2015	19
<b>Madril / Madrid</b>	Grupo de Canto y Danza de Becerril de la Sierra	2012	16
<b>Murtzia / Murcia</b>	Grupo de Coros y Danzas "Museo de la Huerta", Alcantarilla	2008	12

## ERANSKINA: Jaialdiko musika taldeak

<b>Musika Taldea / Grupo de Música</b>	<b>Urtea / Año</b>	<b>Edizioa / Edición</b>
“Hala Dzipo” (X. urteurrena / Xº aniversario) - Barakaldo	2000	4
“Doces Lembranzas” (Centro Galego de Bizkaia en Barakaldo, mendeurrena / centenario)	2001	5
“Bizkaiko Gaiteroak”	2002	6
Barakaldoko Udalaren Musika Banda / Banda Municipal de Barakaldo	2002	6
“Laguntasuna” taldearen fanfarrea	2003	7
Bilbao Musika Eskola	2004	8
“Hala Dzipo” elkarteko abesbatza – Barakaldo	2005	9
“Aspaldiko Txistulariak” txistu taldea – Bilbao	2006	10
“Elai Alai” taldeko dultzaineroak – Portugalete	2006	10
“Zugarramurdi” txalaparta taldea – Sestao	2006	10
“Eusko Lorak” taldeko musikariak - Sestao (50. urteurrena)	2007	11
“Tirauki” folk taldea & Ibarra-kaldu	2007	11
“Ruaille-Buaille” folk taldea	2008	12
“Ceo do Sil” galiziar gaita-taldea – Barakaldo	2008	12
“Jirabiraka” folk taldea - Euskal Herria	2009	13
“Los Desmonicaires” taldea – Gascuña	2009	13
“Folketan” folk taldea – Sestao	2010	14
“Adarrots” folk taldea - Euskal Herria	2011	15
“Duo Deno” bikotea – Barakaldo	2012	16
“Duo Deno” bikotea & Ibarra-kaldu – Barakaldo	2013	17
“Cloverwind” folk taldea – Getxo	2015	19
“Xeremiers Orats” taldeko musikariak – Pollença – Mallorca	2015	19
“Schola Cantorum” abesbatza – Barakaldo	2015	19
Txistu kontzertua - Concierto de Txistularis “Bilbao Musika”	2016	20
“Kale Dor Kayiko” ijito elkarteko musikariak - Bilbao	2017	21
Iratxe Mugire – Barakaldo	2017	21
“Juravca” – Zornotza-Errumania	2018	22
“Residence Irish Band” - Bilbao	2018	22
“Ceo do Sil” galiziar gaita-taldea – Barakaldo	2019	23
“Xeremiers Orats” taldeko musikariak – Pollença – Mallorca	2019	23

## ERANSKINA: Jaialdiko bertsolariak

<b>Bertsolariak</b>	<b>Urtea / Año</b>	<b>Edizioa / Edición</b>
Jokin Castañós (“Hasi” bertso-eskola) eta Xabier Amuriza	2005	9
“Kilika” bertso-eskola	2011-2017	15-21
Sustrai Colina eta Fredi Paia	2016	20
Ametz Arzallus eta Alaia Martín	2017	21
Onintza Enbeita eta Igor Elortza	2018	22
Sustrai Colina eta Xabat Gallettebeitia	2019	23